

EGITARAUA

Azaroaren 16a, osteguna: hitzaldia Baltistan fundazioaren eskutik.

Arratsaldeko 6:30ean, Udaletxeko ganbaran.

Hitzaldian, Fundazioaren lana azaldu eta Baltistango hezkuntza egoeraren berri emango da.

Azaroaren 20a, astelehena: Haurren eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna.

18:00etan, komentuan, Marrazki eta bertso lehiaketaren sari banaketa.

Ikastetxeetan landu da ekimen hau. Aurreko asteetan zehar, Basabeazpi, Kurtzebarri eta Almeneko hurrek eskubideen inguruko marrazki eta bertsoak sortu dituzte.

Ondoren, Eneko Haritzak munduko ipuinak kontatuko ditu.

Azaroaren 24a: Elkartasun jaia Baltistango haurren ikasteko eskubideen alde.

Ekintza guztiak plazan izango dira.

17:00etan, Algara ludotekakoek eskulanak egiteko 3 mahai jarriko dituzte. Mahai bakoitzean eskulan bat egiteko aukera izango dute hurrek, euro baten truke.

18:00etatik aurrera, txokolatea eta bizkotxoa. 2 €

18:30ean, haur berbena, DJ Txurruren eskutik.

Elkartasun mahaia: Egun honetan itsulapikoak eta elkartasun bonoak egongo dira salgai.

Antolatzaileok herritar guztiak animatu nahi ditugu jai honetan parte hartzera. Modu asko daude elkartasuna agertzeko, hona hemen batzuk:

- 1.- Itsulapikoan borondatea bota
- 2.- Bizkotxoa ekarri guk saltzeko
- 3.- Eskulanak egin
- 4.- Txokolatea eta bizkotxoa jan
- 5.- Bizkotxoa erosi
- 6.- 50 €-ko bono bat erosi elkartasun mahaian.